

ALDIA

noauea

Mertxe Aizpuruari
elkarrizketa

Klikmetroak egitasmoa
jarri da martxan


Herriko produktuekin
egingo da igandeko
Tipi Tapa



**Udarregi Ikastola,
asteburu honetako protagonista**

BOX Alokairua

3 igogailu + erreminta guztiak



Autokarabanak, furgonetak, quads, motorrak eta abar...

Zuk Zeuk konpontzeko tokia eta erremintak

ORDU ERDIA : 10€ Ondoango minutuak : 0,35€

- 2 ORDUTIK AURRERA DESKONTUA !!


Eta nahi izanez gero laguntza !!

Olio, balazten, eta abar en zerbitzua

GURPILAK PREZIO ONEANI!

666 539 269

Ugaldea Pol. 9 - 4. Nabea - 3. Lokala - 20170 Usurbil



FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

•EDOZEIN ASEGURU IZANDA
(OCASO, SANTALUCIA...)

**HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**

(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA
EDO ERREZIBOA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR,
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK
•Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo
beilatokia DOAN (gure eskutik)

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia

E.: contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



Albisteak iruditan

Udaz gozatzeko, aisialdi eskaintza ugari

Ekaina amaieratik hasita udan zehar hurrei zuzenduta antolatu diren aisialdiko ekimenen inguruko zenbait ohar segidan:

Udajolas

2 urteko esperientzia duten begiraleak behar ditugu, tituludunak, EGA edo baliokidearekin. Usurbildarrek izango dute lehentasuna. Kurrikulumak bidali ekainaren 5a baino lehen, NOAUA!ra edo elkarte@noaua.eus helbidera. Ez ahaztu bestalde; Udajolaseko guraso bilera, ekainaren 10ean 17:00etan Potxoenean.

Aginagako udako txokoak

Izen ematea, ekainaren 12ra arte: 607 484 597 (Ainhua) edo aginaga@eskolatxikiak.org. Prezioa, izen emate kopuruaren arabera zehaztuko dute. San Praixku Guraso Elkarrekin antolatutako 4-12 urte arteko txokoak, ekainaren 22tik aurrera.



Udajolaserako begiraleak behar dira. Guraso bilera, aldiz, ekainaren 10ean izango da.

Zubietako udako txokoak

Izen ematea ekainaren 8ra arte. Izen emate orriak Alamandegina eskuratu eta bertako postontzian utzi. 3-12 urte ar-

tekoentzako txokoetako prezioa, haur kopuruaren arabera zehaztuko dute.

Argibide gehiagorako: 608 663 047 (Bakartxo).

Laburrean

Santixabeletako helduen danborrada entseguak

Lehen bi entsegu saioak ekainaren 9an eta 11n, 20:00etan Udarregi Ikastolako eraikin gorriko beheko frontoietan. Izen ematea saioetan egin beharko da. 16 urtetik gorako herritarrek parte hartuko ahalko dute. Entsegu saioetara gerrikoarekin joateko deialdia luzatu dute antolatzaleek.

San Juanetako oilasko biltzaileen bazkaria

Ekainaren 19tik 24ra ospatuko diren Kaleazko jaien baitan, Oilasko Biltzaileen Eguna antolatu dute hilaren 20rako. Biltzaile txikiak kalejiran irtengo dira goizean, eta gero bazkaria antolatu dute plazan. Otordurako txartelak Kaffa kafe-tegian salgai izango dituzue ekainaren 10etik 17ra.

Aurrematrikulazioa zabalik Lanbide Eskolan

Ostiral honetan itxiko dute erdi eta goi mailako zikloetarako izen ematea, aurrematrikulazioa. Ordutegi honetan bideratu daiteke tramitazioa: Astelehenetik ostegunera: 08:30-14:30 eta 16:00-18:00. Ostiraletan: 9:00-14:00. Informazio eta argibide gehiago: 943 36 46 00 / eskola@lhusurbil.eus / lhusurbil.eus

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Idoloia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoloia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza


Ilazki Gainza

Santixabeletan ere parekidetasunaren alde!

Geroz eta gutxiago falta zaigu Santixabeletan murgilduta egoteko! Hilabetearen festa giroaz gozatzen egongo gara denok herrian: kuadrila eta familiako bazkari eta afariak, parrandak, musika talde desberdinen kontzertuak, kirol ikuskizunak, etab. Ondo pasatzeko aukera sorta ederra izango dugu uztailaren 1etik 5era.

Matrakok jaien antolatetaren inguruan hausnartu dugu eta jai parekideen aldeko apustua egin dugu. Oraindik asko dago egiteko, aldatzeko eta aurreratzeko. Denok jaietan, nahiz egunerokotasunean, parte hartzaile sentitu nahi badugu, festak ulertzeko era aldatu behar dugu. Hausnartu behar dugu. Horretarako, eraso sexistaren kontuan izan beharreko protokoloa eta anto-

latuko ekitaldietan kontuan izan beharreko puntuak landuko ditugu, besteak beste, jaiak ahalik eta parekideenak izan daitezzen.

Herriko gazte eta helduak jendarte parekide batean sinesten badugu ere, argi dago, praktikan asko dagoela egiteko. Batzuetan, hain barneratuta ditugun iritzi eta jarrerak aldatzea kosta egiten delako, eta besteetan, ez dugulako hausnartzeko denbora hartu ere egiten. Herriko jaiak duten garrantzia ikusita, ezinbestekoa da jai parekideen inguruan hausnartzea eta ekiteko moduak aldatzen joatea. Jaietan, egunerokoan izaten ditugun jarrera sexistak erreproduzitzen ditugulako.

Adibidez, zein musika entzuten dugu? Abesti patxangeroetatik hasi, eta Euskal Herrian hainbeste entzuten dugun rock-era bitarte-

ko analisia egiten badugu, erraz kontura gaitzke abestien letrak mezu sexista ugari zabaltzen dituztela. Bestetik, gehienetan mutilen taldeak dira taula gainean ikusten ditugunak eta egon badaude emakumez osatutako taldeak. Aukera bat merezi dute horiek ere, ezta?

Horretaz gain, denok dakigun moduan, eraso gehiago izaten dira jaietan eta horri aurre egiteko protokoloa erabili behar ez izatea espero dugu. Horretarako, denok ulertu behar dugu alkohola ez dela aitzakia mutil batek neska bat behartzeko -muxe ematera, sexu harremanak izatera, etab.-; neskak nahi duen eran jantzita joateko eskubidea duela -mutilak nahi duten moduan joaten diren bezala- eta mini gona eta eskotearekin joateagatik inork ez

duela berari errespetua galtzeko eskubiderik. Badirudi hau denok dakigula eta kuadrilan, taldean, gaudenean denok errespetatu eta zabaltzen dugula mezu hau. Baina, praktikan, ez da horrela izaten.

Musika eta erasoak aipatu ditut oraingo honetan, baina, edozein gai eta jarrerekin egin behar genuke hausnarketa hau, aldaketarako bidean pausuak eman nahi baditugu. Benetako aldaketa erreal baten alde sinesten badugu.

Denok gozatu nahi dugu gure lagun eta familiaren konpainiaz jaietan. Beraz, ondo pasa dezagun beste inori gaizki pasa arazi gabe. Jendarte parekide bat lortu nahi badugu, denon artean eraiki behar dugulako. Gozatu Santixa-belak!

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Ilazki Gainza** | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

“Eskerrik asko bozka ematera hurbildu zineten guztioi!”

Esker hitzak Zubietako Herri Batzarretik erakundearen osaera berritzeko maiatzaren 24an ospaturiko hauteskundeetan parte hartu zuten herritar guztiei. “Eskerrik asko bozka ematera hurbildu zineten guztioi!”, adierazi dute ohar bidez.

Bozkek erabaki dute, datozen lau urteotan Zubietak izango dituen bi alkateak; Joxe Mari Zubimendi Urdanpilleta eta Juan Narciso Arrillaga Balda. “Hauek, Aizpea Aizpurua, Itziar Basterrika, Mikel Bengoetxea eta Fernando Iturraldeekin batera, Zubietako Herri Batzarra osatuko dute 2019 urte bitartean, beti ere, zubietarrok elkarlanean eta beraien laguntzarekin noski!”, adierazi dute Zubietako Herri Batzarretik.

Emaitzak

Usurbil aldeko emaitzak:

Joxe Mari Zubimendi Urdanpilleta 64



Hauek izan ziren sei hautagaia. Joxe Mari Zubimendi eta Narciso Arrillaga izan ziren bozkatuenak.

Itziar Basterrika Unanue 53
Aizpea Aizpurua Arroyo 51

Donostia aldeko emaitzak:

Narciso Arrillaga Balda 67
Mikel Bengoetxea Iparragirre 60

Fernando Iturralde Zabala 55.

Emaitzak eskutan, legegintzaldi honetan, Zubietako Herri Batzarreko alkate izango dira:

■ 2015-17 artean: Joxe Mari Zubimendi Urdanpilleta.

■ 2017-19 artean: Narciso Arrillaga Balda.

Herri Batzar berria osatzeko ekitaldia, ekainaren 20-21eko aste-buruan ospatuko da.

Informazio gehiago: zubietu.eu

Ekainaren 13an osatuko da udalbatza berria

Aldaketarik ez bada, ekainaren 10ean arratsaldeko 18:00etan batuko da udalbatza azken aldiz. “Legegin-tzaldia itxiera emateko osoko bilkura” izango da, Mertxe Aizpurua alkatearen esanetan. Batzuk joan, besteak etorri. Udalgintzaren sokak ez du etenik. Legegintzaldiko azken osoko bilkura egin eta hiru egunera ospatuko da udalbatza berria eratzeke ekitaldia. Ekainaren 13an izango da, eguerdian, Udaleko pleno aretoan. Udal ordezkari gazteenak eta helduenak udalbatza berria eratzeke mahaia osatuko dute. Segidan, alkatea hautatzeko bozketa egingo da. Egungo alkate Mertxe Aizpuruaren eskutik jasoko du Xabier Arregik, 2019ra arte izango dugun alkate berriak, legegintzaldia hasteko ikurra; zumia.



Ekainaren 10ean batuko da azken aldiz 2011-2015 legealdiko udalbatza.

Iritzia



Maialen Unanue

Mamuak joan, mamuak etorri

Ez dut ukatuko: maiatzaren 24an penaz joan nintzen ohera; baita nekatu xamar ere, hainbeste daturen dantzarekin. Usurbilgoak osatuta zeuden oherakoan: ez, artean, Gipuzkoako Foru Aldundikoak eta Nafarroako Gobernuak. Baina, hala ere, agerian zegoen ordurako aldaketa bietan: EH Bilduren galera Gipuzkoan, eta UPN-ren erortzea baino, aldaketaren aldeko alderdien batura eder hori Nafarroan. 26 eserleku desira-tuak.

Batzuen begietara hain argi agertu zen Geroa Bai + EH Bildu + Ahal Dugu + Ezkerra ez da Nafarroako Parlamentua osatzeko aukera bakarra. PSN hasieratik kanpo uztea baztertu zuen Uxue Barkosek, baina bi alderdien arteko bileretan bi gauza argi utzi zituen Maria Txibite sozialistak: ez dutela “gobernu nazionalistarik” nahi, baina emaitzetan bosgarren indarra izanik, ezin dutela hori oztopatu eta oposizioan egotea dagokiela. Eskerrak: PSN hor sartzea iraingarria litzateke nafarrentzat. Ahal Duguren kasuan, artikulua hau entregatzeko orduan behintzat, “aldaketa ahalbidetzea” dela euren asmoa azaldu dute, Nafarroako Gobernuaren parte izan edo gabe. Madriletik sokak sozialistenak baino dezente lasaigoak omen.

Nafarroan mamuak joan, eta Gipuzkoan, berriz, bueltan. Nafarroako aldaketak poza bezainbeste sortzen du pereza Gipuzkoakoak. Berriz ere errauskailua martxan, berriz mamua bueltaka. Hor da Bidegi auzia ere puri-purian. Ea zer ematen duten hurrengo lau urteek.



Aritz Gorriti

B aldea

Eragile politiko gehiago, gehiengo osoen garaia amaitu da, eta orain, egoerak behartuta negoziatzea tokatzen da leku askotan. Ezberdinen artean harremantzeko moldeak aldatu behar, halaberharrez. Maiatzaren 24ko hauteskundeek hainbat txokotan utzi duten panorama dugu. Usurbilen aldiz, kontrakoa egokitu da. EHBilduk nagusitasun osoari eutsi dio, eta bostetik hirura jaitziko da udal taldeen kopurua, Hamaikabat desagertu eta Aralar EHBilduko kide izatera igaro ostean. Gobernu talde eta oposizio sendoa izango ditu Usurbilek. Lagungarria izango ote da eguneroko jardunean? Hala izan bedi. Bada arreta piztu duen beste datu bat. Batzar Nagusietako emaitzak. EHBildu nagusi, EAJ bigarren, eta PSE-ri aurre hartuz Podemos hirugarren indarra. Bozka kopuru horrekin, aurkeztu izan balitz, Podemosek ordezkari bat izan zezakeen udalbatza berrian.

Ezin aipatu gabe utzi, udal hauteskundeetako emaitzek Zubietan nola eragingo duten. Aspal-di ikusi gabeko elkarlanerako jarrera erakutsi du Donostiako Udalak, lau urteotan Zubietan. Handitu duten Eskola Txikia, horren adibideetako bat izan da. Eta orain? Ikusteke dago, EAJ-ren gobernu taldea nola harremanduko den zubietarekin, alderdi bereko Aldundirako Diputatu Nagusi izango dena, legegintzaldia hasi baino lehen, Zubietan erraustegia eraikitzen konprometitu denean.



Imanol Ubeda

Disko aldaketa

15M mugimenduko lehen artean zen: “Ez A alderik, ezta B alderik ere. Diskoz aldatu nahi dugu”. Maiatzean bete ditu lau urte 15M mugimenduak. Eta orduan sinesgaitza egiten zitzaidan arren, mugimendu horrek baldintzatu ditu, eta nola, Espainiako udaletxeetako gobernu asko.

2011ko maiatzaren 15ean hasi zen 15M delakoa Madril. Kanpaldia puri-purian zela, Madrilera joatea egokitu zitzaidan. Ordurako, hedabide guztietako goiburua zen 15M-a. Beste hiri bat zirudien. Aurretik egindako bisitetan, nekez imaginatzen nuen horrelako mugimendu bat piztuko zenik Espainiako kapitalean.

Interes eta joera ezberdineko jendea batu zen. Eta aldarrikapenak ere, halakoak ziren: asko eta askotarikoak. Boz altuan partekatzen ziren lema, ideia eta proposamen asko. Baina helduleku argirik ez zuen Sol plazan piztutako mugimenduak.

- Oso ondo dago hau. Baina horri forma emango dionik ez da jaio, antzekorik esaten nion Madrilgo nire lagunari.

- Beno, igual ezerezean geratuko da hau dena. Baina behintzat, jende bat mugitzen hasi da. Eta mugimendua beti da ona, halaxe erantzun zidan lagun madrildarrak.

Lau urte eta gero, diskoz aldatzeko zorian dira Madril. Giza mugimenduetatik sortutako plataforma batek gidatuko du Madrilgo udaletxea. Duela lau urte, nekez sinetsiko nukeen. Hitzarekin konbentzitu dituzte. Ea doinuarekin asmatzen duten orain.

Larunbatetik aurrera, uretako sorospen ikastaroa

Bihotz eta biriken geldialdi baten aurrean lehen bost minutuetan egoera kudeatzea ezin garrantzitsuagoa da bizia salbatzeko. Baina zer egin ahal dugun jakin ezinik aurkitu gaitezke. Halakoak saihesteko suspertze teknikak irakasten aritu zen DYA-ko boluntario talde bat, maiatzaren 29an frontoian egokitu zuten gunean.



Aurreko astean bihotz eta biriken ingurukoa eskaini zuen DYAk frontoian.

Uretako sorospen ikastaroa

DYA-koek antolatutako prestakuntza saioak, ekainaren 6tik 28ra, larunbatetan 09:00-13:00 eta 15:00-19:00 artean eta igandetan, 9:00etatik 13:00etara, DYA-ren egoitzan eta Oiardo Kiroldegian. "Ikastaro teoriko-praktiko honetan

ur-inguruan sor daitekeen edozein larrialdi egoeretan jokatzeko eza-gutzak eskuratzen dira. Igerilekuko praktiken bidez biktimaengana gerturatzeko, erreskatatzeko eta uretatik modu seguruan ateratzeko trebatzen da ikaslea", zehaztu

dutenez. Ikastaroan parte hartzeko ezinbestekoa izango da, Lehen Sorospenetako titulua indarrean izatea. Taldeak partaide kopuru mugatua izango du. Izena emateko eta informazio gehiagorako: 943 46 46 22 edo dyagipuzkoa.com

Zumarte Musika Eskolaren 30. urtemuga festa ate joka

Hiru hamarkada luze bete ditu Zumarte Musika Eskolak. Eta urtemuga ospatzera doaz, ikasleak protagonista izango dituen ekitaldi ziklo batekin. Ekainaren 13a izango dute jai egun nagusia, hitzorduon bueltan:

Ekainak 13, larunbata

10:30 Txistularien kalejira.
12:30 Musika txokoko ikasleen emanaldia frontoian.
17:00 Zumarte-Txiki, Zumarte eta Zumarte-Gazte abesbatzen emanaldia Elizan.
19:30 Trikitilarien kalejira.
22:30 Trikitilari-Panderojole/Folk/Pop/Rock taldeen kontzertua frontoian.



Ekainaren 13an egingo da jaialdi nagusia baina ekainaren 15ean eta 18an ere izango da ekitaldirik.

Ekainak 15, astelehena

18:30 Piano, saxo, klarinete eta bioliniko ikasleen audizioa, Zumarte Musika Eskolako Ganbaran.

Ekainak 18, osteguna

19:00 Ikasleen emanaldia Sutegin: bakarlari, bikote, talde instrumental txikiak. Flautak, biolin taldea...

Enkantean, Santueneko udal jabetzako 2 pisu

Hilabeteko epea dute interesdunek, eskaintzak aurkezteko. Bi etxebizitzon "irteera prezioa hobetzen duten eskaintza onenei izendatuko zaizkio etxebizitzak".

A. etxebizitza

Helbidea: Santuenea, 17-1º A.

Azalera: 50,00 m2.

Gutxieneko prezioa: 90.248,90 euro.

Gehienezko prezioa: 106.323,45 euro.

Ezaugarriak: Sukaldea, sala, 2 logela eta komuna.

B. Etxebizitza

Helbidea: Santuenea, 25-3º ezkerre.

Azalera: 59,27 m2.

Gutxieneko prezioa: 106.323,45 euro.

Gehienezko prezioa: 132.823,45 euro.

-Ezaugarriak: Sukaldea, sala, 2 logela eta komuna.

Informazio gehiago:

Usurbilgo Udala

943 371 951

kontratazioa@usurbil.eus

Udaberri Festa mundiala Zubietan

Jai giroan joan zaie zubietarrei, ikasturte amaierara bidean ospatu duten astea. Haur eta helduak bildu dituen Udaberri Festaren bueltan. Zubietako Guraso Elkar-teak antolatutik, ekintza ugariz gozatu ahal izan dute. Dantza-tu, tailerretan parte hartu edota jolasteko tarte zabala hartu dute.



Astebete iraun du Udaberri Festak.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Baserriko haragia

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Teknologia berriak, euskararen industriarentzat

Literatura-kritiketako iritzien erauzketa automatikoaren demoa, bideoetako bilatzaile batena eta online ahots bidezko hizkuntza-irakasle pertsonal batena baita. Guztira 3 demo garatu ditu elkarlanean Elhuyarrek, EHU-ko Aholab eta Ixa ikerketa-taldeek, Tecnalia Research and Innovation Fundazioak eta Vicomtech-IK4 teknologia-zentroarekin elkarlanean.



Elhuyar, EHUko Aholab/Ixa taldeak, Tecnalia eta Vicomtech izan dira egitasmo honen sustatzaileak.

2012-14 artean, azken 3 urteotan eginiko Ber2Tek izeneko ikerketaren emaitza da honakoa, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua.

Eginiko lanketa, aurreko astean aurkeztu zuten Elhuyarreko egoitzan, hedabideen aurrean. "Ber2Tek proiektuaren helburu nagusia izan da hizkuntza- eta hizketa-teknologiak ikertzea eta ikerketaren emaitzak aplikazio bihurtu eta jendearen eskura jartzea. Teknologia horiek hizkuntzen industrian zertan lagundu dezaketen erakusteko, hiru demo eraiki dira, edukien,

itzulpenaren eta hizkuntzen irakaskuntzaren arloetarako; izan ere, hizkuntzen industriak eta, bereziki, euskararen industriak, teknologia aurrera-ituak behar ditu eskura ingurune globalizatu, interkonektatu eta eleaniztun honetan lehiakor izateko", berri eman dutenez.

Eraiki diren demoak

■ Edukien arlorako iritzien erauzketa automatikoaren demoa: "Demoak testu bat hartzen du, iritzi subjektiborik baduen aztertzen du, eta, baldin badu, hura positiboa edo negatiboa den ondorioztatzen du, automatikoki".

■ Itzulpenaren arlorako bi-

deo bilatzailearen demoa: Bideoetako testuak automatikoki transkribatzen ditu, transkripzio horiek bideoan bilaketak egiteko balia daitezke eta euskarara, gaztelaniara eta ingelesera itzultzeko aukera ere ematen du. Itzulpen horiekin gainera, audioa sor daiteke, bikoizketa automatikoki egin.

■ Hizkuntzen irakaskuntzarako tutore pertsonalaren demoa: "Demoko tutorea 3Dko avatar bat da, eta harekin euskaraz komunikatzen gara, ahoz".

Informazio gehiago:

ber2tek.eus

ber2tek.eus/eu/demoak

ber2tek.eus/eu/aplikazioak

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa



Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkapen faseko bi saio jokatu ziren pasa den igandean Usurbilen. Ibai

Esoain (argazkian) eta Manex Mujika izan ziren goizeko eta arratsaldeko saioetako garai-leak.

Paisaia linguistikoa euskalduntzeko kanpaina

Topagunetik sustatzen ari diren ekimenean parte hartzeko deia herritarrei. 4 urrats errazetan, inguruan dugun paisaia linguistikoa euskaldundu dezakegu: erdara hutsezko errotuluak identifikatu, pegatina jarri, argazkia atera eta irudia partekatu. Bideotatik:

euskaraz.365egun.eus

Twitter

Instagram

#ZergatikEzEuskaraz

Udako kimaketari buruzko ikastaroa

III. Sagastiak Loretan zikloa amaitzeko, udako kimaketa aztergai larunbat honetan, 10:15etatik aurrera Potxoenean, Aitor Etxeandiak bideratuko duen saioan.

Bigarren kafe-tertulia, ekainaren 20an

Lehenengoak izan duen harre-ra ikusita, bigarren saioa antolatzea erabaki du Matrakak Usurbilgo Talde Feministak. "Mila esker maiatzaren 23ko kafe-tertulian parte hartu zenu-ten guztioi. Plazer bat izan zen! Hurrengoaren zain gaude jada, ekainaren hirugarren astean egingo dugu. Zer, etxean eginiko gailerei, gure konpainia mundialari eta tertuliari ezetz esan eta etxean geratuko al zara? Animatu!", luzatu dute gonbita antolatzaileek. Aurretik, "Arrakala" dokumentala proiektatzekoak dira eta larunbat honetan, Parekidetasun Sailarekin elkarlanean, autodefentsa feminista ikastaroa antolatu dute:

Ekainak 6, larunbata

■ 09:30-13:30 eta 15:00-19:00 Autodefentsa feminista ikastaroa Potxoenean. Bideratzailea: Maitena Monroy. Izen emateko: 943 377 110 edo parekidetasuna@usurbil.eus. Informazioa: autodefensafeminista.com

Ekainak 18, osteguna

■ 21:30 "Arrakala" dokumentalaren emanaldia frontoian. "Zer da heteroaraua? Nola egitura-tzen da bizi garen jendartean? Nola eragiten digu gure bizitzetan eta harremanetan? Galdera horiei nolabaiteko erantzuna bilatu nahian, Arrakala proiektua jarri dugu martxan Topatu gazte proiektu komunikatiboak eta Bilgune Feministak elkarlanean". Informazio gehiago: arrakala.net

Ekainak 20, larunbata

■ 11:00 Kafe-tertulia Potxoenean.

Antolatzailea: Matrakak.

2014ko Kontu Orokorra, behin betiko onartua

Hauteskunde aurreko azken osoko bilkura egin zuten maiatzaren 21ean. Ezohiko saioan, diru-kontuei loturiko proposamenak izan zituzten udal ordezkariak mahai gainean. Batetik, 2014ko Kontu Orokorra behin betirako onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz, EH-Bilduko zinegotzien babesarekin. EAJ-PNV eta Hamaikabateko ordezkariak abstenitu ziren. PSE-EEko zinegotzia ez zen egon osoko bilkuran.



Maiatzaren 21eko udalbatza plenoko argazkia da hau.

Alegazioetarako zegoen 15 eguneko epean, inork ez du erreklamaziorik aurkeztu. Gaia plenora ekarri eta udalbatzak gehiengo osoz onartu ostean, “behin betiko izaeraz onartutako Kontu Orokorraren Espedientea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari” igorriko zaio, “dagozkien azterketak egiteko”.

Zerga-ordenantzen aldaketa

Abenduan onartu zituzten 2015eko urte osorako zerga-ordenantzak. Baina ez denak. Ez behintzat, irailetik irailera edo uda partean indarrean izango diren zenbait tasa. 2014ko urte amaieran, zerga-ordenantzok

ZUMARTEGI EREMUA

“Alegaziorik ez zen egon, eta gehiengo osoz eta behin betiko onartu zuen udalbatzak”

aurrerago onartzekotan geratu ziren. Maiatzaren 21eko ezohiko osoko bilkuran behin behingoz onartu eta aldatzea erabaki zuten gehiengo osoz, EHBilduko ordezkarien aldeko bozkekin. EAJ-PNV eta Hamaikabateko udal ordezkariak abstenitu ziren.

NOAUA!k eta Usurbilgo Udalak uztailerako antolatutako Udajolaseko tasak eta datorren 2015-16 ikasturtean Haur Es-

kolak eta Oiardo Kiroldagiko ikastaroek indarrean izango dituzten tasak dira, hasieraz maiatzaren 21ean onartu zituztenak. Erabakia udaleko iragarri taulan jarri eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, alegazioak aurkezteko 30 eguneko tartea izango dute interesdunek. Iradokizunik ez bada, erabakia behin betiko onartutzat joko da. Bestela, “Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko ditu”.

Aldaketa Arau Subsidiarioetan, Zumartegi eremuan

Arau Subsidiarioek Zumartegi

industriaguneko jarduera kimikodun enpresei baimenak ematea debekatzen du. Baina arauok diotena ez dator bat, Atxegalde pareko lantegien zonaldeak duen errealitatearekin. Hor dago Igepak enpresa. Lantegi honetatik eginiko eskaerari erantzunez hain zuzen, Arau Subsidiarioetako A-30 (Zumartegi) Eremuaren Antolamendu Xehatua aldatzeko behin betiko proposamena eraman zuen gobernu taldeak, maiatzaren 21ean egin zen ezohiko osoko bilkura. Hartara, enpresaren jardura babestu eta baimenak emateko segurtasun juridikoa izateko aipatu lantegiak.

Hasieraz onartua zegoen, finkatutako 20 eguneko epean alegaziorik ez zen egon, eta aurreko plenoan, gehiengo osoz eta behin betiko onartu zuen udalbatzak, arau subsidiarioetako aldaketa hau. Proposamenaren alde bozkatu zuten EHBilduko ordezkariak. EAJ-PNV eta Hamaikabat abstenitu ziren. PSE-EEko zinegotzia ez zen osoko bilkuran egon. Behin betiko onarturiko erabakia, Gipuzkoako Foru Aldundira bidali eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dute.

Udalgintza berria hasi baino lehen beste osoko bilkura bat egingo dute, ekainaren 10ean

Maiatzaren 21ekoa, legegintzaldiko azken osoko bilkura izango zela uste bagenuen ere, beste pleno bat deituko da, hau bai azkena, ekainaren 10erako. Besteak beste, maiatzaren 21eko ezohiko osoko bilkuraren akta onartzeko.

Esan bezala, saio hori bai, 2011-2015 legegintzaldiko azkena izango da. Baita udal ordezkari gehienentzat ere. 13 zinegotzitik zortzik, ez baitute udal ordezkari gisa jarraituko:

■ Udala utziko dute: EHBildutik, Mertxe Aizpurua alkatetxak, Josu Portuk, Jose Maria Rivadeneyrak, Joxe Ramon

Furundarenak eta Enara Arbizuk; Hamaikabateko ordezkari Luis Mari Ormaetxeak eta Josune Urkiak; eta PSE-EEko zinegotzi, Ricardo Crespok.

■ Maiatzaren 24ko udal hauteskundeetako zerrendetan aurkeztu ziren zinegotziak: EH Bildutik, Alaitz Aizpurua, Jone Urdanpille-

ta, Iñaki Ugarte eta Eustakio Arrojeria. Eta EAJ-PNV-tik Josune Urkola alkategaia.

Ekainaren 13an osatuko da udalbatza berria

Udalbatza berria eratzekeo saioa, ekainaren 13an izango da, larunbatez.

USURBILDARROI

Zorionak!



ehbildu

Aurrerantzean ere elkarrekin arituko gara.

ehbildu



ARDI-BELTZ 1.GO URTEURRENA

EKAINAK 5, 6 ETA 7

ETA OSPATZEKO...



**GARAGARDO GUZTIETAN
ASTEBURU OSOAN**



D'CAPRICHOREN KONTZERTUA!

"Bi Dak" orain datoz de CÄPRICHO
Usurbilera lehenbiziko diska aurkeztuz
eta euskaraz sorturiko diska
berriko kantak ere abestuko digute

EKAINAREN 6AN, (LARUNBAT GAUA)

D'Capricho
habanatik

Puntapax 12 Bajo - Usurbil

943 37 73 30

@ardi_beltz

Igandean, Ikastolaren egun handia

Jaialdiaren harira, “Ikastolako Artezkaritzatik bertan parte-hartzera gonbidatu nahi zaituztegu eta bazkarira etor zaitezten animatu!”. Denetarikotik ekitaldiak izango dira igandean; bazkaria tartean eta prestaketa lanetarako laguntza behar dute: “Joan den urteetan bezala, giro alai eta hurbilago bat sortzeko, bazkaria prestatzeko gurasoen parte-hartzea behar da, horretarako, zuen laguntza-eskaera egiten dugu hainbat lantalde-tan parte hartzeko: garbiketa, muntaketa, janari prestatzea, janari banaketa... Anima zaitetzete!”, luzatu dute gonbita.

Aurretik, gogoan izan, Udarregi Ikastolaren sorrerari buruzko dokumentala estreinatuko dela ostiral honetan:

Ekainak 5, ostirala

- 17:00 Haurrentzako jolasak, Askatasuna plazan.
- 18:00 Txokolate jana, Askatasuna plazan.
- Jarraian, buruhandiak. Bakoitzak bere etxetik ekar



Goiz partean jokoak, erakusketa, haur jaialdia... Eta eguerdian, herri bazkaria frontoian.

ARTEZKARITZAREN OHARRA

“Joan den urtean bezala, giro alai eta hurbilago bat sortzeko, gurasoen partehartzea behar da bazkaria prestatzeko”

ditzala.

- 19:30 “Usurbilgo ikastolaren sorrera” dokumental estreinaldia Sutegiko auditorioan. Egileak: Jexux Agirresarobe

eta Aitziber Elortza. “60ko hamarkada bukaeran guraso batzuk elkartu ziren ikastola sortzeko asmoz. Asmoak gauzatzeko gai izan ziren. Ezin guztien gaineratik Ikastola sortu zuten”.

- Jarraian luntxa, frontoian.

Ekainak 7, igandea: Ikastola Eguna

- 10:00 Esnadeia.
- 09:00-12:00 LH eta DBHko ikasleen jokoak.

■ 10:30-13:00 Haur Eskolako haurrek egindako lanen erakusketa Oiardo Kiroldegiko harrera-tokian eta LH eta DBHko ikasleen eskulan eta teknologia lanen erakusketa Ikastola gorrian (Gernika Ibilbidea 11).

■ 12:00 HHko Haur Jaialdia.

■ 14:00 Herri bazkaria eta bazkal ondorengo girotzeta gurasoen eskutik frontoian.

■ Antolatzaileak: Udarregi Ikastola, #Kilometroak15 eta Hitz Aho.

Ikastolaren inguruko dokumentalaren estreinaldia

Kilometroak 2015 Usurbilen egingo zela ospatzeko, ikuskizun gogoangarria egin zen kiroldegian. Hori iragan udazkenean izan zen. Ekitaldi hartan, Udarregi Ikastolaren sorrerari buruzko lekukotza batzuk proiektatu ziren. Ostiralean ikusiko dugun dokumentalaren lagin batzuk ziren. Orain, lana oso-osorik ikusteko aukera izango dugu. Ostiral honetan, 19:30ean hasiko den proiektzioan. Jexux Agirresarobek eta Aitziber Elortzak zuzendu dute dokumentala. Proiektzioaren ondoren luntx bat izango da.



“Usurbilgo ikastolaren sorrera” dokumentala ostiralean eskainiko dute Sutegin. 19:30ean hasiko da proiektzioa.

BAZKIDEEN TXOKOA



NOAUAIKO bazkide guztien artean zozketatuko
ditugu sari zoragarri hauek. Uztailaren 17an



ORIKO AISIAN 2 LAGUNENTZAKO GAU BAT
+ zirkuitu termala+ Pentsio ERDIA



2 LAGUNENTZAKO afaria
Atxega Jauregian



2 LAGUNENTZAKO
ZIRKUITU TERMALA ORIKO AISIAN



noaua! euskararen aterpe

Orain bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan
Parte hartzeko aukera izango duzu

(36€ urtean soilik) 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

Mertxe Aizpurua: “Ikastolaren berritzea izan

Lau urte egin ditu alkatetzan. Eta badoa. Bere lantokira itzuliko da. Gara egunkarira, kazetari lanak egitera. Alkate izatea estuasun ekonomikoen garaian egokitu zaion arren, egindako lanarekin pozik dago. Atzetik datorren lan-taldean fede handia du. Eta horrek guztiak ematen duen patxadarekin hartu gaitu bere bulegoan. Luze-zabal hitz egin dugu amaitzera doan legealdiaz. Elkarrizketa hau www.noaua.eus web orrian ere ikus-entzun dezakezue.

Pozik egindakoarekin?

Mertxe Aizpurua: Egia esan bai, pozik egoteko arrazoi batzuk baditugu. Talde bezala oso ondo funtzionatu dugu, guztiok dena jarri dugu lana ongi ateratzeko. Oso ongi moldatu gara zinegotzien artean eta baita udal langileekin eta horren emaitza ikusi da.

Ze erabakik sentiarazi zaituzte bereziki harro?

Adibidez, Aginagako Saria hezegunea berreskuratzeko bideratu dugun proiektuak asko asetu nau. Agian herritarrak oraindik ez dira kontziente ze balore duen, baina etorkizunari begira izugarritzko aurrerapauso bat egin da hor. Oso egitasmo ederra. Herritar guztiek eskertuko dute.

Zertan ez duzue asmatu?

Gaizki eramaten da, norbait laguntza eske etortzen denean eta laguntza zeure esku ez badago. Ezintasun hori sentitzea ez da atsegina. Ziur aski, jardun honen alderik ilunena izango da. Bestalde, estuasun ekonomikoan ibili gara lau urteotan. Behar beharrezkoak ziren lanak baino ezin izan dira egin, ez baitzegoen aukerarik. Halere, nahiko txukun eraman da hori guztia.

Legegintzaldi honetako une zailenetarikoa...



Musika Eskolaren eraberritzeari ezin izan diote ekin, “ia hurrengo legegintzaldian gauzatzen den”.

MERTXE AIZPURUA

“Estuasun ekonomikoan ibili gara lau urteotan. Behar beharrezkoak ziren lanak baino ezin izan dira egin, ez baitzegoen aukerarik”

Lehenbiziko uholdeak izan genituenean. Udalean sartu eta hila-bete gutxira izan ziren. Gogoan dut hemen ari ginela bueltaka zerbait egin nahian, baina naturaren aurka ezin ezer gehiago egin. Estutasunez bizi izan genuen, ez baikenekien zer gertatuko zen. Une kritiko bat izan zen.

Eta une gozo bat...

Soka dantza berreskuratu genuenean adibidez. Ikurriñaren omenaldia egin genuen egun hura ere polita izan zen. 1977tik honaino alkate izandakoak etorri ziren, bat izan ezik. Bestalde, kalean edo norbaitekin topo egitean, kritikak ere jasotzen ditugun arren, eskerrak ematen dizkizutenean. Gauza txikiak izan arren, handi bezala sentitzen dira.

Finantzazio faltak zer modutan baldintzatu edo mugatu du zuen jarduna, lau urte zail hauetan?

Beste udalerrietan bezala, izugarri baldintzatu gaitu. Diru iturriak murriztu dira eta horren kudeaketa egin behar zen. Egitasmo handiak bideratzeko dirua izatera ohituak ginen. Legegintzaldi honetan ordea, egitasmo txikiak eta behar beharrezkoak bakarrik egin dira. Baina horiek ahalik eta modu egokienean bideratu dira. Udarregi Ikastolaren eraberritzea izan da bideratu dugun proiektu handiena. Obra polita izan da. Erabiltzaileak oso gustura geratu dira. Eta eurite eta uholdeek eragindako kalteak konpontzen ere diru asko joan zaigu. Mendietako bide asko erori zaizkigu behin baino gehiagotan. Musika Eskolaren eraberritzea, ia hurrengo legegintzaldian gauzatzen den.

“Usurbilen zerbait hobetu da egoera”

Egoera ekonomikoari dagokionez, zer aurreikuspen egin daitezke? Usurbilen zertxobait hobetu da. Obra txiki asko egiten ari dira.

Hori ere diru iturria da. Etxebizitza berriak eraikiko dira eta hortik ere diru sarrera batzuk izango dira, baina gerora, jardunaldi horietatik ez da diru iturri handirik aurreikusten.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ondo kudeatu du gai hau, eta udalen diru kopurua mantendu egin du eta batzuetan baita gehitu ere.

Gabeziak, komunikazio arloan

Kazetaria zara. Nola baloratuko zenuke, Udalak izan duen komunikazio politika?

Baliabide teknikoek aldetik, oso txarra izan da. Lan hori ere nik egin nezakeen zerbait zen, baina ez dut denborarik izan. Webgunea eta arlo hori oso alde batera utzi dugu, arazo ekonomikoenatik, nonbaitetik murriztu beharra zegoen eta. Baina komunikazioa modu askotara bideratu daiteke. Komunikazioa ere bada, nola zuzentzen zaren herritarrengana, nola lan egiten duzun herritarrekin. Alde horretatik, sail guztietan ondo lan egin dugu.

da bideratu dugun proiektu handiena”



“Administrazioa humanizatu behar dugu”

Hirigintzan, hezkuntzan... hainbat parte hartze prozesu sustatu dituzue. Pozik izan duten harrearekin? Herritarrak parte hartzeko gogoz ikusi dituzue?

Mertxe Aizpurua: Bi saiakera oso garrantzitsuak egin ditugu hezkuntzan eta hirigintzan. Oso interesgarriak biak. Jendearen partaidetza ere oso ona izan da. Beldur handiena hirigintzako prozesuan genuen. Baina oso ondo atera da. Jendea inplikatu da, ikusi du zer garrantzia duen horrek herri baten garapenean eta eskertzekoa da halako partaidetza izatea. Prozesuok gainera, nolabait lotu egiten dute udala herriarekin.

Gainerakoan, Udalak herritarrek duen komunikazioa, administrazioa hizkuntza oso hotza, arrotza da. Hor ere udal ordezkariok badugu lan garrantzitsu bat; administrazioa humanizatu behar dugu.

Bi gaiok zer nolako segida izango dute hurrengo legegintzaldian?

Hirigintzako prozesuan egin den lanketa, jendaurrean ikusgai dago. Onespina hurrengo

PARTEHARTZEAZ

“Gazteen mugimendua badago herri honetan, baina udalgintzan falta da lotura hori egitea. Gustatuko litzaidake plan orokorrean edo hezkuntzaren mahaian gazte gehiago ikustea, herriaren etorkizuna eta garapena hortik dator ere”

legegintzaldiko udalbatzak emango dio. Hortik aurrera, 3 aukera planteatzen dira. Irizpide bat hautatuko da eta horren baitan idatziko da plan orokorra. Plan orokorraren idazketa ere prozesu luze bat izango da, 2-3 urtekoa. Gero garatu egin beharko da. Hezkuntzarena, ia suspertu eta indarberritzen den.

Gaztetxea botatzen dutenean, “horren falta nabaritutako da”

Usurbilek Gaztetxea du 2012tik. Zer ekarpen egin dio Gaztetxeak herriari? Gazteen parte hartzea sustatzen lagundu dezake?

Gaztetxeak aktibitatea egotea ziurtatu du. Egitasmo asko

sustatzea, oso politak gainera. Botatzen dutenean horren falta nabaritutako da. Baina gazteek eman behar diote horri erantzuna. Gazteen mugimendua badago herri honetan, baina udalgintzan falta da lotura hori egitea. Gustatuko litzaidake plan orokorrean edo hezkuntzaren mahaian gazte gehiago ikustea, herriaren etorkizuna eta garapena hortik dator ere.

Gaztetxearen okupazio egunean zeure gain hartu zenuen ardura. Erabaki hark ondorioz ekarri du? Nola bizi izan zenituen egun haiek?

Okupazioa egin zenik ez genekien. Okupazio egunean, Ertzaintza etorri zela eta bertaratuko ote nintzen galdetzeko deitu zidaten. Joan nintzenean eraikina hustekotan ziren. Neroni identifikatu nintzen, esan nien ertzainei nere kargu hartzen nuela ardura. Gazteekin adostu genuen, etorkizunean etxebizitzak egiteko eraikina bota behar zenean, utzi egingo zutela arazorik gabe.

Lokal jabearekin ere negoziatu genuen, herriko gazteek eraikina egitasmo batzuk bideratzeko baliatu nahi zutela eta behar zenean utzi egingo zutela gunea. Jabeek aurkeztutako salaketa bere horretan geratu zen.

Hiru emakume agintean

Parekidetasunaren alorrean aurrerapauso ugari eman dira. Besteak beste, mugimendu feminista aktibatu da Usurbilen.

Egia da. Ez zegoen halako talderik. Asko inplikatu da Udaleko Parekidetasun Saila eremu horretan eta fruituak ikusten dira. Hemen-dik aurrera jada indarberritua segiko dute.

Gobernu taldean hiru emakumezko hartu duzue kudeaketa laneko erantzukizun zati handiena. Eroso bizi izan duzue gai hau?

Oso eroso eta oso ondo eraman dugu hiruron artean. Uste dut, gaiak ondo ixteko eraginkorrak izateko joera dugula emakumeok oro har. Eta Udalean ere hala dela frogatu ahal izan dut. Udalean ere ondo hartuak izan gara. Egia da, agintean denak emakumezkoak direla ikustekak atentzioa eman dezakeela oraindik ere. Hirurak gizonezkoak balira, atentzioa deituko ez lukeen moduan. Baina oso esperientzia ona izan da. Jende oso ona ezagutzeko aukera izan dugu. Gainera, udal lanpostu garrantzia handikoetan Usurbilen emakumezkoak ari dira lanean.

“Trantsizioa erraza eta arina izango da”

Zu bezala, Xabier Arregi lehenbiziko aldiz aurkeztu da alkatezara. Aholkurik bai, alkategai eta talde berriarentzat?

Mertxe Aizpurua: Herritarrekin izan beharreko loturari emango nioke garrantzia. Herritarregan pentsatzeko, herriaren onerako egin behar dela lan. Talde lana oso garrantzitsua dela. Gauzak ondo eramaten dira lan talde sendo bat osatzen baldin bada, gauzak asko errazten ditu talde on bat izateak. Gauzak erraztu behar dira zinegotzi guztientzat. Pazientzia izateko, baina Xabierrek badu, patxadadun pertsona dela ikusten da. Oso ondo egingo dute. Osatu duten taldea polita da, eta lehendik datorren jendea ere bada. Hori, jarraipena emateko garrantzitsua da. Gogotsu ikusten ditut. Ondo orekaturiko talde bat da. Dena oso ondo joango da. Baloreak badaude, animo! Une onez gozatu eta txarrak ahalik eta lasterren ahaztu.

Transmisioa erraza izango da?

Erraza eta arina, bai. Gainera taldekide Jonek eta Alaitzek dena kontrolatzen dute. Oso estu lan egin dugu. Alkateak dakiena beraiek dakite. Trantsizio arina izango da. Xabierrekin ere bilera batzuk egingen ari gara. Memorandum bat prestatzen nabil baita.

“Duela lau urte edonor ezin zen aurkeztu”

Zergatik ez zara aurkeztu berriz alkatezara?

Lau urteko erabakia hartu nuen. Duela 4 urte egoera berezian bizi ginen, edonork ezin zuen aurkeztu. Neuregana etorri zirenean, egoera zein zen ikusita, ez nuen askorik pentsatu. Egoera berezi hori egun ez da berezia, edonor aurkeztu daiteke, eta gainera, herrian badira lan hau nik baino hobeto egin dezaketen pertsonak.



“Asko ikasi dut, esperientzia aberatsa izan da eta pertsonalki asko bete nau”.

LAN KARGA HANDIA

“Jendea ez da jabetzen zinegotzi izateak ze exigentzia duen. Batzuk pentsatzen dute izugarritzko dirutza jasotzen dutela. Hemen ez da horrela. Lan karga eta ardura izugarria da”

Beraz, jarraitzeko arrazoirik ez zegoen. Gustura amaitu dut, 4 urteotan gustura sentitu naiz. Une ona iruditu zitzaidan Udala utzi eta neure lehengoko lantokira itzultzeko.

4 urteon ondoren, nola aldatu da Usurbili eta usurbildarrei buruz duzun ikuspegia?

Erabat aldatu da. Beste modu batera ikusten dituzu gauzak. Beste filtro bat duzu. Ez zara herritar soil bat. Kanean zoazenean begiratzen zaituztenean, alkatea ikusten dute. Era berean, nik ere ez ditut pertsonak bakarrik ikusten, pertsona horrek duen arazoa, eskatu duen lizentzia edo eman ezin diogun baimena... Bi aldeetatik da desberdina.

Jende asko ezagutu dut. Gauza asko ikasi ditut herriari buruz, herria ezagutu dut. Gehiago gustatzen zait orain herria, duela lau urte baino. Gauza on asko ditu herri honek, agian baloratzen ez ditugunak.

“Erraz epaitzen ditugu politikariak”

Politikariekiko ikuspegia ere aldatu zaizu lau urteotan?

Orain konturatzen naiz, udalgintza mailan hainbat gauza kritikatzeko direnean, justifikagarria izan edo ez, beti dagoela arrazoirik bat. Hori lehen ere banekien. Baina lau urteotan ikasi dut, gauzak ez direla beti esaten diren moduan. Beti egon daitezkeela bertsio ezberdinak. Politikariak erraz epaitzen ditugu. Politikarien fama txarra kate bat da, udaletxeetan dauden alkate eta zinegotzien gain ere erortzen da eta injustua da. Jendea ez da jabetzen ze lan mardula egiten den, zinegotzi izateak ze exigentzia duen. Jendea iruditzen zaio, oso ondo bizi direla, batzuk badira pentsatzen dutenak izugarritzko dirutza jasotzen dutela. Hemen ez da horrela. Lan karga eta ardura izugarria da.

“Oposizioaren papera ez da izan koherentea”

Nolakoa izan da oposizioarekin izan duzun harremana?

Pertsonekin ez dugu inolako arazorik izan. Jardunean, Aralar kenduta oposizioan zen garaian, eta gainerako taldeak egitasmo konkretu eta une zehatz batzuetan izan ezik, oposizioa ez da batere inplikatu. Oposizioaren papera ez da izan

koherentea. Oso inplikazio eta jarraipen gutxi egon da. Hasiatik nagusitasun osoa genuela jakinda, Udaleko informazio guztia helarazi diegu oposizioari. Horrek udalean dagoenaren izugarritzko kontrola ematen du, jarraipena egiteko oso tresna baliagarria izan da. Baina nik uste ez dutela baliatu aukera, ez dute nahi izan. Abstentziora jo dute etengabe, arrazoirik ez zegoenean ere. Eta euren argudioak ez dituzte inoiz azaldu. Ekimen desberdinetan parte hartzeko deia luzatu diegu, herriaren aurrean Udala, eta ez alderdia, ikusgarri egiten saiatu izan gara. Zenbaitetan parte hartu izan du oposizioak. Gehienetan ez. Pena da. Herritarrei zor diegu zinegotzi guztiek.

Etxebizitza berriak, begibistan

Etxebizitza berriak 2016rako aurreikusten dira, ezta?

Agian bai, urbanizazio plana onartzeaz dago. Xehetasun azterlana orain dago jendaurrean. Alegazio bat egon da, tramitazioa pixka bat luzatuko da. Pare bat edo hiru hilabeteetan martxan egon daiteke. Aurten izan daiteke agian.

#Kilometroak15, “kohesiorako onena”

Kilometroak urtean utziko duzu Udala. Gattunk mugimenduak zer ekarri dio herriari?

Gauza on asko ekarri ditu. Baina ekarri duen onena, herrian sustatu den eta herrian lotzen ari den harreman sarea izan da. Jendea benetan elkar ezagutzea eta harreman sendo asko egitea ekarri du. Herriaren kohesiorako elementu oinarritzakoa da. Onena.

**UDAKO
IKASTAROAK 2015**

**UDAN ERE
EUSKAHALDUNDU
ZAITEZ!**

aek

Gurea ikastea
gurea irakastea
gurea irakasten



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK, EUSKALDUNTZEA
AZTERKETAK PRESTATZEKO · ON LINE IKASTAROAK



**2 ASTEKO
BARNETEGIAK**

EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO AUKERA · AZTERKETAK PRESTATZEKO



**FAMILIA
BARNETEGIAK**

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEKIN EUSKARAZ ARITZEKO



**BARNETEGI
IBILTARIAK**

OINEZ ZEIN BIZIKLETAN · MINTZAPRAKTIKA EGITEKO

673 200 100 · 946 464 000

www.aek.eus



• **100 orduko ikastaro trinkoak
UZTAILAN ETA IRAILAN**

• **1., 2. eta 3. hizkuntza eska-
kizunak edo EGA prestatzeko
klaseak**

607 609 379

usurbil@aek.org

www.muntteri.blogspot.com.es

Usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia,
45 behe
20170 USURBIL



Sutegi, arropa diseinatzaileen erakustoki

Euskal Herrian ditugun arropa diseinatzaile hainbat erakustokia izango dugu Sutegi bi asteotan. Estilo ezberdinetan lantzen dituzten jantziak ezagutu, probatu eta erosteko aukera izango duzue. “Neurrira egindako euskal jantziak haur nahiz helduentzat, jantzi serigrafiadunak, arropa koloretsua, asimetrikoak, estilo pertsonalagoa dutenak, klasikoa, kotoi ekologikoa baliatzen dutenak... Oso landua dagoen arropa”, erakusketa antolatu duen Zorione Mendez herritarrek berri eman digunez.



Zorione Mendez, erakusketa antolatzailea. Beñat Irazusta antolaketa laguntzailea.

Arte Ederrak ikasia, patroigintzari loturiko prestakuntza jaso du. Betidanik izan da arroparekiko zaletasuna. “Txikitatik erabilitako arropa gustuko izan dut”, adierazi digu Mendezek. Jantzien berrierabilera, erabilitako jantziei bizia ematea, eta erakusgai jartzea, sarritan zaila izan arren. Diseinatzaile baten baino gehiagoren arazo nagusia baita, ezin dutela lokal bat eskuratu. Horretara dator erakusketa baita, sortzaileen erakusleio eta saltoki izatera, “zer dagoen erakusteko, diseinatzaileei euren burua ezagutzera eman edota salmentarako gunea eskaintzeko”.

Euskal Herriko bederatzi diseinatzaileen lanak bilduko ditu Zorionek, Sutegiko erakusketa gelan. “Iparralde, Irun, Hondarribia, Azpeitia, Donostia edota Usurbil”, ordezkatuak ikusiko ditugu.

ERAKUSKETA

Larunbatean egingo da inaugurazio ekitaldia, 19:00etan. Karamel musika taldeak girotuko du

Erakusketa solidarioa

Soinean daramatzagun jantzien jatorria ezagutzen ote dugu? Jatorrira joko bagenu, besteak beste, lan baldintza oso kaxkarretan diharduten jostunen errealitatera hurbilduko ginateke. Sutegiko erakusketa hain zuzen, errealitate gordin hau ezagutzera emateko baliatu nahi du antolatzaileak.

“Kontzientziaztea, nori, zer, non eta nola” erosten diogun. Sentsibilizatzen laguntzeko Gobernu Kanpoko Erakunde pare baten informazioa aurkitu ahalko duzue. SETEM nazioarteko elkartasuna sustatzen du-

ten 10 GKE-z osaturiko federazioarena batetik. Munduko hainbat lekutan langileek pairatu behar izaten dituzten lan baldintza eskasak salatzen dituzte. Eta animalia guztiak defendatzen dituen Askekin-tzari buruzko argibideak baita. Hauen berri jaso ahalko dugu, erakusketan zehar eta ekainaren 6ko inaugurazioan.

Inaugurazioa larunbatean

Astelehenean zabaldu zuten arren, larunbatean inauguratuko da erakusketa, 19:00etan. Besteak beste, Usurbilgo musika talde instrumental baten estreinako emanaldiak girotuko du ekitaldia; Karamel taldeak.

■ Epea: ekainak 1-15.

■ Orduetgia: Astelehenetik ostiralera: 17:00-20:00. Larunbata eta igandea: 12:00-14:00 / 17:00-20:00.

■ Sutegiko erakusketa aretoan.

■ Inaugurazioa: ekainak 6, 19:00: Setem (GKE), “emakume jostunen lan baldintzak”. Karamel musika taldea zuzenean.

Irailean, arteari buruzko erakusketa

Zorione Mendezek “Bi txoriburu” izena jarri dio Sutegin zabaldu berri duen erakusketari eta aurrerago antolatu asmo duen beste bati. Bi proiektu baitauzka esku artean. Ireki berri duenari segida eman behar zion bigarren erakusketak. Baina ekainean, ohi den moduan, Sutegiko instalakuntzak ekimen gehiagotarako beharko direnez, irailera arte atzera-teea erabaki du. Egile ezberdinen lan bilduma ikusgai jarri nahi du Zorionek orduan. Bere sorkuntza lanak tartean.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Klik egin, metroka ibilbidea osatu arte

Milaka lagunek osatuko dute urriaren 4an Usurbilen ospatuko den #Kilometroak15 ekimeneko ibilbidea. Aurretik, metroz metro, urratsez urrats ibilbide birtuala osatzera animatzen gaituzte antolatzaileek, martxan jarri berri duten Klikmetroak egitasmoaren bidez. Aurreko urteetan, beste edizioetan egin bezala, aurreko ere Kilometroak-en aldeko herritarren atxikimendu eta elkartasun mezuez bete nahi dute sarea. Zenbat eta metro gehiago egin gainera, zenbat eta itzuli gehiago eman zirkuitu birtualari, orduan eta gehiago lagunduko dugu Kilo-metroak ekimena.



Mikel Bengoetxea, Klikmetroak egitasmoaren sustatzaileetako bat.

Norbanako bat, metro bat

Klikmetroan parte hartzea oso erraza da eta doakoa. Norbanako bakoitzak metro bat egitean oinarritzen da “eta, bakoitzak metro bana egin da, ibilbideari ahalik eta itzuli gehien ematea. Bisitariek egindako metro bakoitzeko, babesleek dirua jarriko dute Kilometroak festaren alde”. Ibilbideko metro bakoitza, nork egiten duen, idatzitako mezua eta metroa diruz lagunduko duen babeslea, guztia

MIKEL BENGOTXEA

Erabiltzaile bakoitzak metro bakarra egin ahal izango du ibilbide birtualean, “pertsona askok metro bana egitea da erronka”

ikusgarri egongo da, Klikmetroak.kilometroak.eus atarian.

Norbanakoen atxikimenduekin metroz metro ibilbidea nola osatzen doan ikusi ahal-ko da gainera, mapa batean.

CodeSyntax enpresako langile Josu Azpillagak garatu du web orri berriaren diseinua. Usurbilgo ediziorako espreski sorturiko diseinua, gailu guztietarako egokitua, eta irisgarria. Gogoan izan, #Kilometroak15-ek, besteak beste, inklusibotasuna sustatu nahi duela. Web orria ere denontzako irisgarri izatea bermatu nahi dute eta atari berrian denok parte hartu ahal izatea, “Guztiok Gattunk” eta.

Zuen atxikimendua ematerakoan, aintzakotzat hartu beharreko bi ohar garrantzitsu,

Klikmetroak egitasmoaren lanketan parte hartzen ari den Mikel Bengoetxea herritarrek gogorarazi dizkigunak.

Mezuak, jaiarekin bat

Batetik, erabiltzaile bakoitzak metro bakarra egin ahal-ko du ibilbide birtualean, “pertsona askok metro bana egitea da erronka”.

Eta atxikimendu mezuek urriaren 4an Usurbilen ospatuko den jaialdiarekin lotura izan beharko dute. Ataria arduraz baliatzea eskatzen dute.

“Gattunk Kilometroak egiten hasi Gattunk!”

Klikmetroak egitasmoak abiatu du #Kilometroak15-en zirkuitu birtuala. Lehen metroak egin ditu jada, web orrian ikusi ahal-ko duzuen bezala:

- 1. metroa, Arantza Manterola: “Ikastolan lotu GATTUNK. BaGATTUNK. Harik eta behar den artean ari, goaztean”.
- 2. metroa, Koldo Tellitu: “Hezkuntza sistema propioa

eraikitze auzolanean pausu irmoak ematen ari gattunk”

- 3. metroa, Josu Azpillaga: “Gora Usurbil! Gu ere Gattunk!”

- 4. metroa, Mikel Bengoetxea: “Seguru al Gattunk!”

- 5. metroa, Xabier Alustiza: “Euskera, lotzen gattun soka! Usurbilen ikusiko gattunk.”

- 6. metroa, Maria Jesus Imaz: “GATTUNK klikmetroak egiten hasi GATTUNK! Goaztean!”.

Parte hartzeko:

- Klikmetroak.kilometroak.eus atarian sartu eta formularioa bete: izen abizenak, eposta, argazkia, eta gehienez 250 karaktereko mezu labur bat prestatu.

- Twitter edo Facebook bidezko login aukerak baliatuta ere parte har dezakezue. “Modu horretan, metro hortako mezua idatzita aski izan-

go da, argazkia eta izen-abizenak, Twitterretik edo Facebooketik hartuko baititu klikmetroak.com-ek”, antolatzailerik esanetan.

Oharra:

Erabiltzaile bakoitzak, metro bakarra egin dezake.

Informazio gehiago:

klikmetroak.kilometroak.eus

Gure Esku Dago-ren mahai ibiltaria

Ekainaren 21eko erronkarako "sarrerak eskuratu, kamiseta berria erosi, Erabakitzeak Es-kubidearen aldeko atxikimendua eman edo informatu nahi duen orori gure mahai ibiltaria hurbiltzeko deia egiten diogu. Animatu, eta hurbildu zaitez!", luzatu dute gonbita Usurbilgo Gure Esku Dago taldekak.

Ekainaren 21eko erronkarako antolaketa betean dira. Honatx erronka egunak dakarren egitaraua:

Ekainak 21, igandea

Usurbildar, aginagar eta zubieta-rrek, Donostian dute hitzordua:

■ Egunean zehar, familia gunea Ilunben (tailerrak, puzgarriak, abentura parkea, pailazoak...), goizeko 11:00etatik 17:00etara kontzertuak Anoetako mini estadioan, 3000 pertsonentzako bazkari musikatu, gau partean erromeria mini estadioan...

■ 12:00 Oihal-kate erraldoia, aurrez jositako oihal zatiekin. Usurbildarrak itsasotik hasita 2. zubiaren inguruan, Askatasunaren Hiribideak



Kamisetekin batera, ekainaren 21erako sarrerak eskura daitezke mahai ibiltarian.

EKAINAREN 21EAN

"Oihal Katearen bizkarrezurra antolatzeak, Usurbildik 16 pertsona boluntario beharko ditugu"

(Avenidak) Urumea zeharkatzen duen zubiaren inguruan. "Oihal Katearen bizkarrezurra antolatzeak Usurbildik 16 pertsona boluntario beharko ditugu".

■ 17:30 Ekitaldia Anoeta futbol zelaian: "Egunaren puntu gorena izango da. Egun, herri eta auzoetan dauden borondatez jositako oiha-

len bitartez hautetsontzi erraldoiak eraikiko ditugu".

■ Anoeta Estadiorako sarrerak salgai Lizardin eta Kiroldegian.

■ Kamisetak eta Anoetako futbol zelairako sarrerak salgai, ostira-lean 19:30etatik aurrera, Gure Esku Dago taldeak frontoi inguruan jarriko duen mahai ibiltarian edo Lizardin.

Ekitaldia prestatzeko, ekainaren 12an bilera Sutegin Ekainaren 12an ostirala, Sutegin bilera irekia egingo da, 19:30ean hasita.



Gipuzkoako Taldekako Txapelketan, Buruntzazpi bigarren

Pasa den igandean jokatu zen Gipuzkoako Txapelketaren Taldekako Erlojupekoa Zumaian, Oroitzek aditzera eman digunez.

18,5 km-ko ibilbide batean 44,05km/h batz bestekoarekin, Donosti Berri izan zen azkarrena. Bigarren postuan Usurbileko Buruntzazpi Txirrindulari Eskola sailkatu zen 37 segunduetara eta hirugarren Oriako Txirrindulari Eskola 1min 14 segundora.

Argazkian dira Manex Altuna eta Imanol Iribar txirrindulariak, Xabier Carbayedak zuzendariarekin garaikurra jaso berritan.

Maddi Altuna, Gipuzkoako Tennis Txapelketako finalean

Pasa den larunbatean Lasarte-Oriako Michelingo Kirol Gunean, alebin mailako Eskola Arteko Gipuzkoako Txapelketaren finala jokatu zen.

Maddi Altunak (Udarregi Ikastola) Natalia Gordejo (Presentación de María) izan zuen aurkari. Partida lehiatu batean Maddi Altunak 6-3 amore eman behar izan zuen finalean. Zorionak hala ere Maddi Altunari.



Santixabel jaietan, Umeen Eguneko ginkanan parte hartu eta laguntzeko deialdia

Uztailaren 3an ospatuko den Santixabeletako Umeen Egunerako pare bat ohar antolakuntzatik. Lehen, izen emateari loturikoa: "Ginkanan (LH-ko ikasleei bideratua) parte hartu ahal izateko, Udarregi Ikastolan dabilzan umeei gelan galdetu eta apuntatuko zaie, eta beste usurbildar umeei email bidez izen emateko aukera izango dute ekainaren 19ra arte", azken egun hau barne.

Inskripzioa banaka edo taldeka egin daiteke. Banaka bada, adierazi norbere izen abizenak eta ikasten ari den maila. Taldeka bada, gogoan izan, "8-12 kide bitarteko taldeak izan daitezke. Hala ere, kide gehiago dituen taldeak ere onartuko dira. Taldearen izena eta partaide bakoitzaren izen-deiturak eta ikas-maila eman. Partaidetzaren arabera, antolatzaileek taldeak egokitu ahal izango dituzte".

Gurasoei deia

"Umeen Egunerako gurasoen laguntza ere nahiko genuke. Egunean laguntzeko prest bazaude, bidali email bat, izena, deitura eta hartu emanetarako telefono zenbakia adieraziz eta zurekin harremanetan ipiniko gara", ohartarazi dute antolatzaileek. Laguntzeko nahiz Haurren Eguneko ginkanan izen emateko helbidea hau da: santixabelak.umeen.eguna@gmail.com

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ARRANDEGIA
PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Parti
Parrandak
Jatetxea

bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera

943 362725 · 688 690 361

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Haurtzaroa, gozatzeko eta oinarritzko trebetasunak lantzeko garaia

Kiol jardueren inguruko hausnarketarako hitzaldi interesgarria antolatu zuen Usurbil F.T.-k maiatzaren 28an. Herriko kirol eskaintzaz aritu ziren, haur edo gaztetxo batek noiz hautatu behar lukeen kirol jarduera bat edo beste... Ahotan hartu zituzten gaiok, besteak beste, Luis Zulaika adituak eta herriko nahiz klub ezagunetan dabilzan zenbait kirolari usurbildarrek.

Teknifikazioa gerora eman behar da

Etapak bakoitzean kirol jarduerak bakarrean edo gehiagotan



Kirol munduko baloreez hausnartu zuten maiatzaren 28ko hitzaldian.

aritzea komenigarriagoa ote den, hitzaldiko gai nagusietako bat izan zen. Zulaikak argi du; haurtzaroa kirol jarduera ezberdinez gozatu eta oinarritzko trebetasunak lantzeko garaia

da. Eta gerora eman behar da, aniztasun horretatik teknifikazioarako jauzia. Garrantzitsuenak ordea, maila bakoitzean zer egin nahi den argi izatea dela dio Zulaikak.

Martxan da Usurbil Cup



38 talde, ehunka haur eta gaztetxo ari dira parte hartzen Usurbil Cup-en. Txapelketa batean dira. Jardunaldi bat bestearen atzetik egunotan.

Lehenengoa astearte eta ostegunean, eta bigarrena, larunbat eta astelehenean ospatuko da.

Eskubaloikoak, larunbatean Leioan

VI. Ander Manzanedo Egunean hartuko dute parte. "Maila desberdinetan hainbat neska-mutil izango dira deituak gure elkartetik. Gipuzkoako selekzioa, Araba, Bizkaia eta Nafarroakoaren aurka lehiatuko da maila bakoitzean".

Ekainaren 13an, bazkideen batzarra Sutegein. 11:00etan.

Ekainaren 20an Usurbil KE-k bere eguna ospatuko du elkarteko kide guztiekin. Herri afarirako txartelak Aitzagan eta Bordatxon izango dira salgai. Ekainaren 24tik 28ra bestalde, Granollers Cup txapelketan parte hartuko du Usurbil KE elkarteak.

Lokizeko irteeran izen ematea

Ekainaren 10era arte egongo da zabalik, Andatza Mendizaleen Kirol Taldekoek antolatu duten hurrengo irteeran izen emateko epea. Lokiz mendizerrara joateko gonbita luzatzen digute, ekainaren 14an. "Irteera honetan Narkue eta Urbisu herriak lotzen dituen ibilbidean Arnaba mendia igoko dugu", iragarri dute. Mendiko federatua izan eta aseguru txartela baduzu, apuntatzeko 12 euroko ordainketa egin, kontu zenbakiotako batean: Rural Kutxa: 30080259163005430321 Kutxabank: 20955069071068489805 Informazio gehiago: andatza.com

Udako kirol ikastaroak

Kirol ikastaro eskaintza zabala prestatu dute Oiardon, uda parteko. 8-13 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzenduriko Kirolarekin Jolasean, igerilekuko ikastaroak haur nahiz helduentzat, eta pilates, aerobik, zumba, spinning... Lehorreko ekintzak alegia. Ikastaro guztietan izen emateko, gerturatu Oiardo Kiroldegiko sarrerara.

Eskubaloiko errifa zozketa

Iruditzen dituzue. Joxelu Zabala eta Asier Makazaga ditugu, Usurbil Kirol Elkarteko errifa zozketa sarritu berriak. Bruño etxekoan mariskada ederra tokatu zaie, 7.162 zenbakidun errifaren jabea.



Bruño etxekoan mariskada tokatu zaie.

Alebin futbol taldea osatzeko izen ematea

2015-16 denboraldiko taldean parte hartu nahi dutenek, ekainaren 8an Haranera gerturatu daitezela izen ematera, 17:00-18:30 artean. Ekainaren 13an guraso bilera egingo dute.

Amezketari irabazi eta gero, Andoain aurkari

Pagazpek Amezketako Zazpi Iturriren aurka irabazi egin zuen, 2-1, BERRIA txapelketako azken laurdenetan. "Orain final-erdia ditugu, ekainaren 14an Andoain-en, Andoaingo taldearen aurka".

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ETXETRESNEN KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK
645417665
XABIER
Usurbil

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua salgai Santuenean. Egoera onean. 3 logela, sukaldea, komuna eta nahi izan ezker garaje moduko batekin. 659 460 979.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Pisu bat salgai Erreka-txiki kalean. Sukalde-egongela, 2 gela, komuna, balkoia. Ganbara egongelarekin lotua. Garaje itxia barne. 210.000 euro. 656716844 Enrike

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxe salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 222.000 euro. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1. Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

959 Julien.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxia. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin ejina. 608 227 462. Prezioa jaitxi dugu; orain, 36 milioi pezetatan.

Etxe salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxe salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sailean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak. 677 471 648.

Atxegalden lau logetetako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Atxegalden etxe bat, 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela, estudioa, argitsua, sartzeko prest, berogailu zentralarekin, 670 410 273

Gela bat alokatzen dut Erreka-Txiki. 665319105 / 943367232

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatuzko 17:30-18:30

deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, guztiz kanpokaldera. 630 713 583.

2 logela alokatzen dira kontratu eta eroldarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, mas-kotarik ez. 686 056 040 (Mariano).

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatuzko pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Pisu berria 100 metro koadro. Egoera ezin hobea. Pertsona bat edo pertsona bat umearekin. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Baju komertzial bat salgai erdiko kalean. 62 metro koadro, solairu batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapax-etik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karra-tuko lokal komertziala salgai Santu-Enea auzoan 671547567

Kawasaki Vulcan 500eko motorra duena salgai. Prezio onean. 667 055 553

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurrena 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uz-

teko izango litzateke. 645720571

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Txapeldun taberna alokairuan edo salgai: 676 976 005.

Urte osorako zerbitzari euskalduna behar dugu Aginaga sagardotegian, asteburuetan lan egiteko. 943 366 710

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil. Interna moduan ere bai. Asteburu eta jai egunetan ere lan egingo nuke. Tel. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketari, plantatze eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduk edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketari egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketari... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketari egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filofsia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezala ere. Edozein orduetara. 608299579

Pertsona helduak edo umeak



Zorionak Olatz!

Hemen gaituzugure maitasunezko "belarri astindu" kolektiboa bidaltzeko. Babestu belarriak!! Muxu potoloak.



Zorionak June!

Ekainaren 6an 9 urte beteko dituzu.

Muxu potolo bat Unax, Oihan, Anje eta Aratzen partetik.

Heriotzak

Juan Mari Sarasola Sarasola

64 urterekin hil zen,

maiatzaren 26an Usurbilen



zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketaren... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papela egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeko garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altxariak konpondu.

634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeko garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrek ematen ditut, L.H-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatze eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonen erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

BESTELAKOAK

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Geltokiaren ondoan "skate" egiteko patinete bat aurkitu dut. Galdutako baduzu deitu 943 362 088.

Giltza batzuk galdutako DIA supermerkatu inguruan. Diru-zorro beltz batean, eta 4 giltzekin. Aurkitu badituzu udaltzaingora eramatea eskertuko nuke.

Artzabal inguruan gitarra bat galdutako. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara. 608 566 683.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negozia garri. usurbil72@hotmail.es

Usurbil, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohet bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688888176. Pablo.

Mutil gazte bat prest dago, rotabatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroldegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonika.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak Ekainak 04-ekainak 14

Osteguna 04 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 05 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 06 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Igandea 07 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Astelehena 08 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 09 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 10 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Osteguna 11 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 12 RODRIGUEZ Kale Nagusia 42. Lasarte

Larunbata 13 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 14 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behe, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

Agenda

05 ostirala

- **Ikastolaren Eguna.** Jokoak, txokolate jana, buruhandiak... Askatasuna plazan, 17:00.
- **Usurbilgo ikastolaren sorrera.** Dokumentala 19:30ean Sutegin.
- **Gure Esku Dago** mahai ibiltaria, 19:30 frontoian.

06 larunbata

- **Autodefentsa feminista ikastaroa.** 09:30-13:30 / 15:00-19:00 Potxoenean.
- **Udafesta Gaztelekuan: mezu sekretuak erretzea eta Pinata jaia.** 16:00etan Gaztelekuan.

07 igandea

- **Ikastola Eguna** (ikus 10. orrialdean).
- **Tipi Tapa** herriko produktuekin. Artzabal, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiribogan. Zozketa, 15:00etan Artzabalen.

Herriko zaporea, denboraldi amaierako Tipi-Tapan



Herriko produktuekin osatuko dituzte igande honetako pintxo bereziak. Zozketa Artzabalen izango da.

Ekainaren 7an, ikasturteko azken Tipi-Tapa. Artzabal, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiribogako pintxo bereziak, herriko produktuekin sukaldatuko dituzte; gulak, oilasko lumagorria, arrautza ekologikoak, Aginagako pi-

perrak, barazki ekologikoak... Inoiz baino zapore usurbildarragoa izango du beraz, denboraldiko azken Tipi-Tapak. 150 euroko erosketa balearen eta 2 lagunentzako afariaren zozketa, Artzabalen egingo dute.

Haurrentzako antzezlanak Santuenean

Ostiral honetan, ekainaren 5ean, arratsaldeko 17:30etatik aurrera auzoko frontoian, "Txipli Txapla-Tomasen abenturak" haurrentzako antzezlanak. Antzezlanaren ostean, txokolatea banatuko dute bizkotxoekin.

Larunbatean hasiko da Gaztelekuko Udafesta

16:00etatik aurrera, "Mezu sekretuak erretzea eta Pinata jaia" DBH 1 taldekoentzat. Karaoke festa, munduko jolasen txapelketa, film emanaldia... Ekintza gehiago iragarri dituzte ekainaren 22tik aurrera.

Datozenak

Afaria, Kantu Taldearen ikasturtea borobiltzeko

Oporrak hartzeaz dira Kantu Taldekoak. As-teartean, ekainaren 9an izango dute ikasturteko azken saioa, 18:30-19:30 artean, Udarregi Ikastolako kantu gelan. Ikasturtea amaitzeko afari bat antolatu dute kantu zaleekin ekainaren 19rako, Patri jatetxean. Irekia izango da, edonor joan daiteke. Hori bai, aurrez izena eman 686 969 112 (Ana) telefono zenbakira deituta.

Afari beganoa, ekainaren 11n

Ohi bezala ekaineko bigarren ostegunean 20:30etatik aurrera Usurbilgo Gaztetxean, borondatearen truke. Afalostean oraingoan, Isuo Sasiia musikariaren emanaldia.

Maria Jesus Etxeberriaren erakusketa Artzabalen

Argazki bilduma berria jarri dute Artzabalen. Kasu honetan, usurbildar baten lan sorta. Maria Jesus Etxeberria herritarraren "Euskal Herria lainopean" izeneko argazki erakusketa ikusgai izango duzue, uztailaren 6ra arte.



Argazki erakusketak uztailaren 6ra arte iraungo du.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

Info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ELORZA
O BRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Otar-Goxo

E f i k a g a i a k

BERRIA!

**OTAR-GOXOKO PRODUKTUAK
24 ORDUZ ESKURAGARRI!!**

Makina berrian eskuragarri:
Frijiituak, Lasagnak, pizzak,
txarkuteriko produktuak,
postreak, petxugak,
hanburgesak, xolomoa.....
eta abar!



Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • Usurbil

PSU

serigrafia



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

Gipuzkoako Foru Aldundiaren
partaidetzako aurrekontuak

} **2.000.000 €**
BURUNTZALDEA hobetzeko

150 proposamen

Eskualdeko batzarrean erabakiko duzue zeintzuk egingo duten aurrera

HERNANI. **EKAINAK 9**, 19:00etan, Gabriel Zelaia zentroan (Florida auzoa, 28)

Antolatzailea

Zure esku dago!


 **Gipuzkoa**
BERRIA



EKAINEAN

2 lagunentzako

20 afari



**2 lagunentzako
20 afari
zozketatuko
dira
hurbilag
txartelaren
erabiltzaileen
artean.**

...gozatu Usurbilgo ostalaritzaz!

hurbilag

